

4/24

irizpena

Portuetako udal-kontseiluak sortzeko

dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2024ko otsailaren 22a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzardea

Irizpena 4/24

I.- AURREKARIAK

2024ko otsailaren 2an, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren idazki bat sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Bertan, “Portuetako udal-kontseiluak sortzeko dekretu-proiektuari” buruzko txostena eskatzen zen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1. artikuluan jasotakoaren arabera.

Kontsultatu zaigun arauaren xedea da portuetako udal-kontseiluak sortzea, portuetan eta itsas gaietan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailari atxikita, portuen arloko aholkularitza, kontsulta eta eztabaidarako kide anitzeko organo gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak erabiltzen dituen eskumenen esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioari buruzko ekainaren 28ko 2/2018 Legearen 4.1. artikuluari jarraiki.

Berehala bidali zitzaien dokumentuaren kopia Batzordeko Oso Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia bidaltzeko eta horiek guztiak lan-batzordean landu daitezzen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudiak xedatutakoaren arabera.

Ekonomiaren Garapen Batzordea 2024ko otsailaren 16an bildu zen, eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau aurkeztu zen Batzordeko Oso Bilkurak otsailaren 22ko saioan lantzeko. Bertan gehiengoz onartu da.

II.- EDUKIA

“Portuetako udal-kontseiluak sortzeko dekretu-proiektuak” zioen azalpena, bi kapitulutan banatutako 11 artikulua eta bi azken xedapen ditu.

Zioen azalpenak dioenez, portu-arloko jarduketak, funtsean, portu-azpiegiturak planifikatu eta garatzera bideratuta daude, portu eta azpiegitura eta ekipamendu berriak eraikitzeko edo handitzeko proiektuak onartuta; portuko jabari publikoa kudeatu eta ustiatzera bideratuta daude, portuko espazioak eta erabilerak behar bezala mugatuz, eta haiek erabiltzeko behar diren titulu gaitzaileak eman, aldatu eta azkentzeko prozedurak ezarri, bai eta portuko jabari publikoa zaindu, babestu eta defendatzera bideratuta ere. Eginkizun horiek guztiak Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzari dagozkio, sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 2021eko otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren arabera.

Hala ere, portu batek hartzen duen espazio fisikoa kokaleku duen udalerraren parte ere bada, eta lotura estua du kokatuta dagoen kostaldeko herrietako bizitza sozial, kultural eta ekonomikoarekin. Beraz, ez da lurralde-zati bakartu bat; aitzitik, portuaren eremuan interes ugari biltzen dira, eta, beraz, zenbait eragileren parte-hartzea errazteko mekanismoak eta tresnak hartu behar dira, formula organikoak erabiliz.

Parte-hartzearen printzipio hori betetzeko, 1991ko ekainaren 4ko 359/1991 Dekretuaren bidez portuetako aholku-kontseiluak sortu ziren, portuen arloko aholkularitza-, kontsulta- eta eztabaida-organoa izateko. Haien dimentsionamenduaren, flotaren, harrapaketen eta sektorean duten eraginaren arabera, lau portutara mugatu ziren: Hondarribia, Getaria, Ondarroa eta Bermeo.

Eskumen eksklusiboak erabiliz, Eusko Legebiltzarrak 2/2018 Legea onartu zuen, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioari buruzkoa. Lege horrek berariaz indargabetzen du aipatutako portuen aholku-kontseiluak sortzeko araua. Hala ere, 4. artikulua 1. apartatuak dio erregelamendu bidez sortu behar direla portuetako udal-kontseiluak, portuen arloan instituzioek eta

gizarteak parte hartzeko organo gisa. Eta horixe da, hain zuzen ere, proposatzen den erregelamenduaren xedea: 2/2018 Legea garatzea, aipatutako kontseiluak sortzeari dagokionez.

2/2018 Legearen aurreikuspena garatzeaz gain, administrazio publikoen arteko parte-hartzearen, elkarlanaren, lankidetzaren eta koordinazioaren printzipio orokorrak bete nahi dira, eta, arlo horretan, komenigarritzat jo da harremanak artikulatzeko formulak ezartzea portuko administrazioaren eta portu baten ardura daramaten udal-administrazioen artean.

Horretarako, dekretu-proiektuak honako artikulua hauek garatu ditu:

I. KAPITULUA. PORTUETAKO UDAL-KONTSEILUAK

1. artikulua. Xedea
2. artikulua. Portuetako udal-kontseiluen eginkizunak
3. artikulua. Kontseiluen aholku-izaera
4. artikulua. Portuetako udal-kontseiluen osaera
5. artikulua. Presidentea
6. artikulua. Idazkaria
7. artikulua. Bokalak
8. artikulua. Deialdia eta bilerak
9. artikulua. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legera egokitzea

II. KAPITULUA. PORTU BAKOITZEKO UDAL-KONTSEILUAK ETA HAIEN OSAERA

10. artikulua. Hondarribi, Donostia, Orío, Getaria, Zumaia, Deba, Mutriku, Ondarroa, Lekeitio, Ea, Elantxobe, Mundaka, Bermeo, Armintza eta Plentziako portuetako udal-kontseiluak
11. artikulua. Portuetako udal-kontseiluen osaera

III.- GOGOETA OROKORRAK

“Portuetako udal-kontseiluak sortzeko dekretu-proiektua” aurkeztu digute, iritzia emateko. Horrek, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei eta Itsas Garraioari buruzko ekainaren 28ko 2/2018 Legeari jarraiki, portuetako udal-kontseiluak sortzen ditu, portuetan eta itsas gaietan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailari atxikita, portuen arloko aholkularitza, kontsulta eta eztabaidarako kide anitzeko organo gisa.

Aipatutako Portuei buruzko Legeak (Kontseilu honek irizpena eman zuen horren aurreproiektuaz)¹ zioen azalpenean jaso bezala, portuko jarduerak gure kostaldeko herrien garapenean duen eragina goraipatzen du, jarduera horrek arrantza-, merkataritza- eta industria-sektoreak sustatzen laguntzen baitu.

¹ [Maiatzaren 29ko 8/15 Irizpena.](#)

Eta, zentzu horretan, gure Irizpenak portu-udalerrri binomioaren garrantzia nabarmentzen zuen, honako hau adieraziz: *“objektu berean zenbait administrazioen aginpideak elkartzen diren edozein eremutan interesak elkar egituratu behar dira eta, horretarako, bakoitzaren esku-hartze eremuei dagokienez, kooperazio- eta lankidetzatresnez baliatu behar da, aurrerapen-konponbideak har daitezen, bai portuetarako, baita kokatzen diren udalerrietarako ere”*.

Aurkeztu diguten dekretu-proiektuak instituzioek eta gizarteak parte har dezaten lagunduko du, eta, horretarako, harremanak artikulatuko ditu, portu-udalerrri bakoitzean, portuko administrazioaren eta dagokion udal-administrazioen artean. Halaber, portuen arloko aholkularitza, kontsulta eta eztabaidarako espazioa sortuko du, eta bertan eremu bakoitzean dauden beharrak aztertu eta portuko instalazioen eta azalaren erabilerak hobeto kudeatzea ekarriko duten jarduketak proposatuko dira.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

8. artikulua. Deialdia eta bilerak

Lehendabizi, artikuluko honetako **2. apartatuak** honako hau xedatzen du:

“2. Bilerek erabateko balioa izango dute lehen deialdian, baldin eta, presidentez eta idazkariak gain, edo haien ordezkoez gain, bokalen erdiak bertaratzen badira; bertaratutako horietako batek toki-korporazioaren ordezkaria izan behar du nahi eta nahi ez. Bigarren deialdian, ordu erdi igarotakoan, bilera egiteko moduan izango da Kontseilua, baldin eta, presidentez eta idazkariak gain, toki-korporazioaren ordezkariak ere bertaratzen badira”.

Kontseilu bakoitzaren osaera zehazten duen 11. artikuluan jasotakoaren arabera, toki-korporazioek ordezkari bakarra izango dute. Beraz, ordezkari horri buruzko aipamen oro singularrean idatziz beharko da, 2. apartatu honetako lehen esaldian bezalaxe (*“horietako batek toki-korporazioaren ordezkaria izan behar du nahi eta nahi ez”*).

Hortaz, zuzendu beharreko akatsa da, dekretu-proiektuaren gaztelaniazko zein euskarazko bertsioetan.

Bigarrenik, **3. apartatuak...** honako hau xedatzen du: *“...Ez dira eztabaidatuko Kontseiluan parte hartzen duten bi administrazioek berezko dituzten gaiak buruzkoak izan arren eskumenen aldetik gehiegikeriak dakartzaten gaiak ere, bai administrazio horiek ordezkatzeko dituzten pertsonen aldetik, bai kontseiluen eginkizunen aldetik.”*

Alde batetik, komeni da zehaztea, xedapena argitze aldera, Kontseilu bakoitzean parte hartzen duten bi administrazioak autonomia-erkidegoko administrazioa eta kasuan kasuko udal-administrazioa direla.

Bestetik, testua bitxia da, *“eskumenen aldetik gehiegikeriak dakartzaten”* gaien aipamenari dagokienez. Nolanahi ere, salbuespen hori Kontseiluek eztabaida ditzaketan gaitan aurreikusten denez, zehaztu behar litzateke nork edo nortzuk erabakiko duten zeintzuk diren gai horiek, eta eskatu behar litzateke justifikatu eta aktan jaso dadila zergatik dakartzaten gehiegikeriak.

11. artikulua. Portuetako udal-kontseiluen osaera

13. apartatuak Bermeoko Portuko Udal Kontseiluaren osaera jasotzen du.

Ondarroako Portuko Udal Kontseiluan (11.8. artikulua) gertatzen den bezala, Ondarroako Portuko

Alturako Arrantza Ekoizleen Elkartearekin (OPAAEE) batera, zuzena litzateke Bermeoko Portuko Udal Kontseiluak ere alturako arrantzako flotaren ordezkaritzaren edukitzea.

10. artikuluan zerrendatutako portuen artean, Ondarroakoak eta Bermeokoak bakarrik dute alturako arrantzako flota, eta Ondarroako Portuko Udal Kontseiluan horren ordezkari badago, bidezkoa da Bermeokoan ere egotea, diskriminaziorik ez emateko.

Hori dela eta, 11.13.c) artikuluari apartatu berri bat **gehitzea** proposatzen da:

“-Bermeoko alturako arrantzako flotaren ordezkari bat”.

V.- ONDORIOA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzat jotzen du *“Portuetako udal-kontseiluak sortzeko dekretu-proiektua”* izapidetzea, aholku-organo honek egindako gogoetekin.

Bilbon, 2024ko otsailaren 22an

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Izaskun Astondoa Sarria